



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

ERAKUNDE-ADIERAZPENA, AGERIKO ARRAZOIRIK GABE DESAGERTUEN FAMILIEKIKO ELKARTASUNEZ.

Desagertuen Eguna da martxoaren 9a. Ageriko arrazoirik gabe desagertuen oroitzapenari bizirik eusten dioten familia eta elkarteen ondoan izan gara Espainia osoko entitate lokalak azken urteotan. Aurten, oraindik ere Covid-19aren pandemia bizi dugun 2021 honetan, horren inguruko elkartasun aktiboa berritu nahi dugu. Pertsonen desagertuen errealitate gordinaren neurria gogora ekarri zigun Desagertuen Zentro Nazionalaren 2020ko txostenak: hogei milatik gora salaketa, zeinetatik 5.525 aktibo baitzeuden artean urte honen hasieran.

FEMPen bildutako entitate lokalek bat egin nahi dugu esparru legegile nahiz betearazleko erakundeek bai Estatuan bai autonomia-erkidegoetan bideratzen dituzten ekimenekin, herritarrengandik gertuen dagoen geure eskala lokal propiotik behar diren hobekuntzak egiten laguntzeko.

Edozein desagertuen dela ere, erantzun koordinatu eta integralaren lehen katebegi gisa jardutea da helburua — poliziarren jarduna, eragindako familientzako arreta soziala eta herritarren inplikazio solidarioa tarteko direla—. Izan ere, desagertuen gehienak argitzen badira ere, beste asko erantzunik gabe geratzen dira, eta ez dago jakiterik absente daudenek bizirik

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL EN SOLIDARIDAD CON LAS FAMILIAS DE LAS PERSONAS DESAPARECIDAS SIN CAUSA APARENTE.

El 9 de marzo es el Día de las Personas Desaparecidas. Las Entidades Locales de toda España hemos acompañado durante los últimos años a las familias y al movimiento asociativo que mantienen viva la memoria de las personas desaparecidas sin causa aparente. En este 2021, marcado aún por la pandemia de la COVID-19, queremos renovar nuestra solidaridad activa con esta causa. El Informe 2020 del Centro Nacional de Desaparecidos nos recordó la magnitud de la doliente realidad que entrañan las desapariciones de personas: algo más de veinte mil denuncias, de las que 5.525 permanecían activas a comienzos del nuevo año.

Las Entidades Locales agrupadas en la FEMP queremos sumarnos a las iniciativas de las instituciones del ámbito legislativo y ejecutivo, tanto a escala estatal como de las Comunidades Autónomas, para contribuir a las necesarias mejoras desde nuestra propia escala local, la más cercana a los ciudadanos.

Se trata de actuar como el primer eslabón de una respuesta coordinada e integral ante cada desaparición: en clave policial, de atención social a las familias afectadas y de implicación solidaria de la ciudadanía. Porque, junto a la gran mayoría de las desapariciones que se resuelven, otras muchas quedan sin respuesta, dejando abierta la incógnita sobre si los ausentes siguen vivos o



jarraitzen duten ala hilda dauden, eta sufrimendua eragiten die horrek senideei. Eta gertakariak erakutsi dute zein erabakigarria den desagertuaren lekua, bertatik artikulatzeko alerta goiztiarrak, baita berehalako bilaketa-operatiboak —kartografia lokalaren ezagutzan oinarrituak—, informazio-ekintza bizkorra eta familientzako premiazko lehen arreta ere.

Gaixotasun mental eta neurodegeneratiboen intzidentzia gero eta handiagoak are beharrezkoago egiten du baliabide lokalak erabiltzea —zerbitzu soziosanitarioak, babes zibila eta polizia lokala—, Estatuko segurtasun indar eta kidegoekin estuki koordinatuta. Ekintza-plan batean gauzatu beharra daukagu gure konpromisoa Udalean, inplikaturako alderdi guztien eta bakoitzaren zereginak ongi definitzeko.

Horrela beteko ditugu edukiz elkartasun-kontzeptua eta empatia-printzipioa, maite duten pertsona bat desagertuta egotearen zorigaiztoa bizi duten herrikideen aurrean.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko martxoaren 26an.

mueritos con el consiguiente sufrimiento de sus familiares. Y porque los hechos han demostrado lo determinante que es el lugar de la desaparición para articular desde él alertas tempranas, así como operativos de búsqueda inmediatos basados en el conocimiento de la cartografía local, una rápida acción informativa y una primera atención de urgencia a las familias.

La creciente incidencia de las enfermedades mentales y neurodegenerativas hace aún más necesaria la utilización de los resortes locales —servicios sociosanitarios, Protección Civil y Policía Local— en estrecha coordinación con las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad del Estado. Nuestro compromiso debe materializarse en un plan de acción municipal que defina bien las tareas de todas y cada una de las partes implicadas.

Es así como llenaremos de contenido la noción de solidaridad y el principio de empatía con aquellos de nuestros conciudadanos golpeados por el infortunio de tener a un ser querido desaparecido.

Vitoria-Gasteiz, a 26 de marzo de 2021.